

## Zertuko Batzar Orokorra Begitu-lagunak be joan ahal izango dira

13. orrialdea

## Mendi Amesgarriak Igorren

Ganzabal Mendi Taldeak antolatzen dau Mendi Amesgarriak zikloa, bertan, Bilbao Mendi Film Festivalen parte hartu eben hainbat film egongo dira ikusgai Igorren hilaren 19an eta 26an. Saio bakotxean, lau film labur proiektuko dira. Filmetako batzuk sarituak izan ziran Bilboko jaialdian. **11. orrialdea**



## Bertsolari Gazteen 24. BBKko Sariketea 17an Igorren

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 246

2016ko zezeilaren 16a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## Gorbeia Gune Turistikoak Gorbeia App-a sortu dau

**B**isitariak Gorbeia inguruko egonaldia errezago antolatuteko, turismo baliabideak jasoten dauzan aplikazio bat sortu dau Gorbeia Gune Turistikoak. Bertan, Gorbeia inguruko he-

rrietako ostatu, gastronomia, natura eta egin daitekezan esperientziak jasoten dira. Irudi barria be estrenau dau turismoa bultzatzeko helburua daukan alkarte honek. **7. orrialdea**



## Arratiarrak eta Aratusteak



**A**rratia ez da Rio de Janeiro, baina hemen be bizi-bizirik dago eguneroko errutina eta ordenagaz apurtuteko gogoia. Gure eremuan, ondoko herrietan edo Bilbo uriburuan, moztro koloretsuak jantzita

ibili da BEGITU eremuko jentea jaietan. Erdialdeko orrialdeetara, irakurleak bialdutako argazkiak dakarguz, arratiarren umore ona eta sormenaren lekuko. **8. eta 9. orrialdeak**

### ZEBERIO

## Maskilu konserberek sei hilabete martxan

Sei hilabete dira Maskilu konserberek abiatu zantetik eta egin-dakoaren balantzea eta erronkak emon dabez jakitera bertako bazkideak.

Proiektuak espero baino arrakasta handiagoa izan dauala dinoe. Uste baino baserritar gehiago hurreratu dira Zeberiora euren produktuak botetean sartzeko. Gainera, 30 bisita inguru izan dabe Maskilu ezetuteko eta holango konserbera txiker bat zelan ipini martxan itaunduteko.

Udalaren proiektua izanda, nekazaritza bultzatzeko baserritarri beharrezko jotzen dan azpiegitura eskura ipini deutso. Udalak parte hartze handia izan dau eta "politika publiko adibide ontzat" daukiela nazinoarteko bisitariak dinoe bazkideak. **6. orrialdea**

### BEDIA

## Hasi dira pelota partiduak jokatuten Bediako frontoi barriztatuan

2014ko garagarrian sua hartu eban Bediako frontoiak. Hamazortzi hilabete eta gero, konponketak egiten ibili ostean, bediazarrak hasi dira frontoia erabiltzen kirol eta kultur ekintzetarako, zein pelotan jokatuteko. Lehenengoko ekintzak Gabonetan egin ziran, eta zezeilaren 1etik pelotan jokatu daiteke bertan.

Frontoia konpondutea 266.000 euro inguru kostau da. **7. orrialdea**

### FRUTERIA BEATRIZ

FRUTEA PREZIORIK ONENEAN!

#### ASTEKO ESKEINTZA

Berenjenak	0.99€
Laranja (kiloa)	0.59€
Bainak (kiloa)	1.49€
Tomateak (kiloa)	0.99€
Letxuga bi	0.99€
Kiwiak (kiloa)	0.99€
Golden sagarrak (kiloa)	0.79€

**EGUNERO ESKEINTZA BEREZIAK!**

Lehendakari Agirre 31 Bis (Igorre) Telefonoa: 94 673 64 51

### ARRATIA

## Bardintasuna Zerbitzuak Gizonentzako Gunea eratu gura dau

Arratiako Udalen Mankomunitadeko Bardintasun Zerbitzuak, andra eta gizonen arteko bardintasunaren alde inplikau gura dauz gizonentzako, aldaketa sozial honetan eragile be izan daitezkan. Gizonentzako Gunean, arlo personalean, profesionalean eta sozialean zer egin leikien landuko dabe. Parte hartu gura dabenak hilaren 26a baino lehen emon behar dabe izena. **7. orrialdea**

## Arratiker, S.L. Eraikuntzak

Mota guztietako pabimentua  
Hormigoitza  
Asfaltoa...

Zubizarra 4, behea  
Areatza - 94 612 75 31  
[administrazioa@arratiker.biz](mailto:administrazioa@arratiker.biz)



ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ARRATIARRAK FILIPINETAN XX. MENDEAN (II)

Filipinetako hazienda edo lur-jaube arratiarren artean honako gizon hau nabarmenduko dot: Hermogenes Inuntziaga Olea-Aldekoa, Igorren jaioa 1890. urtean, Urkizu auzoan hain zuzen be (Urkizuko musika-bandearen sortzailea izan zan "indiano" hau), neba-arreba ugari ziran ohiko familia batean. Beste euskaldun asko lez, gazterik pasau zan Ameriketara, emigrazinoan. Argentinako Buenos Aires uriburura ailegau zan lehenengo. Baina Hegoamerikan gelditu beharrean, jauzi handiagoa eginaz Filipinetara heldu zan. Lan eta lan egin ostean, "Hacienda San

José" Negros islako Bais herrian egoana berea egin eban. Andrea, Maria Mendieta Madariaga igorreztarra, 1891an jaioa, gazterik hil zan, eta eukan seme bakarra, Juan Hermogenes deitua, New York-era bialdu eban ikasketak egitera. Aberastuta, Hermogenes Bizkaira bueltatu zan, ez jaioterrira, Galdakaora baino. Herri horren kale nagusian, eta udaletxetik hur, txalet dotore bat eregi eban 1933ko urtean, orduan modan egoan estilo arkitektoniko garaikide "regionalista" edo eklektikoan (badira urte batzuk "Filipinoaren Etxea", izenaz ezagutua bertakoen artean, bota egin dala).

Galdakaora be ezkondu zan Juan Hermogenes semea, bertako Kurtzea auzoko M. Agirre neska politagaz. Inoz jazoten zan ugazabak hemen, Euskal Herrian, bizi izatea eta negozioak Filipinetan eukitea. Holango kasuetan, ondasun edo propiedadeen ardurea bizpahiru kapataz euskaldunen eskuetan gelditutuen zan; haziendaren administradorea be euskalduna izaten zan. Behar gogorrenak (landarea ebatea eta batzea), barriz, bertako biztanleak, hau da, egoera sozio-ekonomiko sano makalean bizi ziran nekazari filipinarrak egiten ebezan.




Jose Maria Mendieta.

Juan Hermogenesek bazituan senideak Filipinetan: amaren aldetik Mendieta familiakoak, hain zuzen be. Mendietatarak, eta argazkian datorren Jose Maria

Mendietak, batez be, "Tabacalera" enpresa hispano-filipinar garrantzitsuan goi-mailako kargua izateaz gain, agroindustria arloan be aurrerakuntzak lortu ebezan: 1941ean esate baterako, italiar teknologia eukan fabrika bat instalau eben gorago aitatutako Bais herrian azukera-kainaberearen hondakinakaz zelulosearen haria edo papela fabriketako. Urteakarrinean Mendieta sendikoak be Bizkaira etorri ziran biziten. Oharra: Eskerrak Pili Legorburu Agirre irakasleari Inuntziaga familiaren gainean emon deustan informazioagaitik. **Angel Larrea Beobide**

TELEFONO INTERESGARRIAK	<b>Larrialdiak</b> Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 S.O.S. DEIAK 112	<b>Dima:</b> 94 631 56 30 <b>Igorre:</b> 94 600 74 63 <b>Lemoa:</b> 94 631 31 16 <b>Ubide:</b> 945 45 03 61 <b>Zeanuri:</b> 94 673 91 49 <b>Zeberio:</b> 94 648 20 79	<b>Bizkaibus* 902 222 265</b> <b>Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo</b> Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.	Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.	Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
	<b>Guardiako Farmaziak</b> <b>09:00etatik 22:00etara</b> <b>Zezeilaren 15etik 21era</b> N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1 Tel.: 94 631 30 18	<b>Udaletxeak</b> <b>Arantzazu:</b> 94 631 56 89 <b>Artea:</b> 94 673 92 05 <b>Areatza:</b> 94 673 90 10 <b>Bedia:</b> 94 631 42 00 <b>Dima:</b> 94 631 57 25 <b>Igorre:</b> 94 631 53 84 <b>Lemoa:</b> 94 631 30 05 <b>Ubide:</b> 945 45 03 22 <b>Zeanuri:</b> 94 673 91 46 <b>Zeberio:</b> 94 648 10 79	<b>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri</b> Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.	<b>Otxandiotik urteerak:</b> Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.	<b>Arrigorriaga-Zeberio-Artea</b> Arrigorriagatik 12:40ean urteten dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
	<b>22:00etatik 09:00etara</b> Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano. <b>Zezeilaren 22tik 28ra</b> Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1 Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908	<b>Udalen Mankomunitatea</b> 94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15 <b>Gorbeialde</b> 94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01 <b>Parketxea</b> 94 673 92 79 <b>Igorreko Kultur Etxea</b> 94 673 62 51 <b>Gorbeialde Irratia</b> 94 631 52 90 <b>Trenak</b> Euskotren 902 543 210	<b>Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo</b> Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino. Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.	<b>Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide</b> Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.	<b>Arrigorriaga-Zeberio</b> Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40. Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
	<b>22:00etatik 09:00etara</b> Melero. Amorebieta-Etxano. <b>Zezeilaren 29tik martiaren 6ra</b> Badiola. Artea. Herriko Plaza 7 Tel.: 94 631 73 11		<b>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango</b> Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo. Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.	<b>Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)</b> Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.	<b>La Union* 94 427 11 11</b> <b>Bilbo-Gasteiz</b> Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.
	<b>22:00etatik 09:00etara</b> Sarasketa. Amorebieta-Etxano. Zeberioak ez dau guardiarik egiten. <b>Urte osoan</b> <b>22:00etatik 09:00etara</b> Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.		<b>Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)</b> Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.	<b>Artea-Zeberio-Arrigorriaga</b> Arteatik urtekerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.	<b>Gasteiz-Bilbo</b> Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.
	<b>Medikuak</b> <b>Arantzazu:</b> 94 631 56 89 <b>Artea:</b> 94 673 92 11 <b>Areatza:</b> 94 631 71 52 <b>Bedia:</b> 94 631 34 13		<b>Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo</b> Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.	<b>Zeberio-Arrigorriaga</b> Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10	



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefonoa:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Erredakzino taldea:** Irati Urien.  
**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.  
**Publizidadea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketea:** Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tiradea:** 6.800 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

**Babesleak:**



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Vicesecretaría de Política Lingüística





Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:  
Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48.142 Artea  
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Hagin (II)



Hona hemen hagin berbeagaz erabilten doguzan beste esangura honeek: A) Konifera espezieko arbola eder hau gero eta gitxiago ikusten da gure basoetan, hil aginean dago zoritxarrez; B) tresna baten maila edo puntea, zerreak esate baterako metalezko hagin zorrotzai esker ebagiten dau; C) landare edo lora batzuen arrak be haginak dira; eta D) "haginak erakutsi" esamoldeak mehatxu egin, burrukarako prest egon esan gura dau, baita be, norberari beste batek burla edo barre egitea.

ERETXIA

Ari, ari, ari  
Cicciolina  
Lehendakari!



RAFA UGALDE

Bizitzan lehenengoz umezurtz naz. Berrogeta hamalau urte dodaz, eta beti izan dot aita babesleren bat, danok babestuko gaituan aita gorena, eta ez da Erromako Aita Santua, ez; Madrileko aita gorena baino.

Egia esan, umezarotik nerabezarora agure zahar patetiko batek bete gura izan eban gu guztion aitaren rola. Ha hil ostean beste hainbat aitaorde etorri ziran; danak arrotzak, Oliver Twisten aitaordea bezain hotzak niretzako. Eurek, baina, ahaleginak egin izan dabez aita babeslearen rol hori jokatzen, guk jakin arren poderearen erotikak baino ez dituala mobidu arazoten. Azken boladan daukaguzanak, baina, gu erakarri guran dabiltz; gu erotizau guran.

Ze erotismo eta ze mokordo —gure amama Mari Ubetxagakoak esango leuken moduan— eragin leikie holako txorimaloak? Batek koletea dindilizka gizarteko transgresorerik handiena balitz moduan, eta abotsa harro samar; txikerra dalako izango da, txikerrak zelan edo halan nabarmendu behar izaten dabe eta. Niri koletea gustau neskengan gustetan jata; gainera, lehenago koletadunak "maritxika" izaten ziran —gaur egun galdu dogun berba eder bat—.

Gizon altu eta atletikoak galantak izan ei dira beti. Politikari bilakatu jakun saskibaloj jokalaria erreka arraina baino gezagoo da, osteraz; edo guk esango geunken moduan "sosoagoo". Gustagarriak diran gizonak kabroitxu puntu bat euki behar dabe, ez "soso" horrek daukan berbakera epela, horrek ez dau inor erotizauko.

Bestetik, Albert daukagu, Albert, Albert... izen horrek zelan ostias erotizauko dau inor; tirantedun juboia eta paketea ondo markatuten daben praka bakero estuak —jeansak, parkatu— bota

kanperoakaz jantziko balitu... tira! Baina horren arteza izanik, alde guztietara ziprztinduten dauan "korrekzino" horregaz ez leuke inoren hankartea astinduko taket horrek.

Azkenik, punturik gorenean bizardun gafosoa daukagu. Bizarduna izatea... bueno, nik ez dodaz bizardunak gustuko azkurea emoten dabe eta; baina bueeeno! "Rompetechos" itxurako gafosoa izatea, begien aurrean holango edalontzi-eperdiak erabili beharra akatsa da, txarto eginda dago —defektuosoa—, eta tira... tiira! Ez da bere errua eta kito. Baina "s" ahoskatu beharrean "szzs" ahoskatzen daua-nari agoan mosua emotea baino gauza higuingarriagorik ez dago, antojua langoa emoten dauana! Dana adurra eta perdigoia.

Ai! Ikuspegi horren aurrean non ete dago gure Cicciolina? Hemen holangorik ez daukagu! Hareri bai, hareri emongo neuskio nik botoa, egunero-egunero emongo neuskio nik botoa hareri; ez dago hemen politikaririk harek erakutsitako "atributorik" daukanik. Haregaz egingo neuke amets nik, gozo-gozo. Baina, amets gozorik ezean, amets gaiztoak daukadaz nik. Eta amets gaiztoetan nor agertu eta Rita Barberá! Jainkoarren! Nik Cicciolina gura eta patuak txotxolina emon!



BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA







**LUMATUTEN**



**SORAYA LIZUNDIA**

**Feminismoari bueltaka**

**A**ndra zein gizon asko urduritu egiten dira feminismo berbea entzuterakoan eta andra zein gizon askok feministatzak daukiez euren buruak. Zer da ba feminismoa? Ni ez naz teoria feministan aditua eta horregaitik era sinplean definiduten dot andra eta gizonen arteko eskubide-aukera bardintasuna helburu daukan teoria eta mobimentu sorta legez.

Eskubideez berba egiten badogu gizarte osoaren arduraz egiten dogu berba, ze bardintasun hori lortzeako ahalegina egin beharra ez da andrena bakarrik. Baina andra askok feminismo berba horrerri bildurra deusie, ez dabe gura feministatzat hartu dagien, gauzak aldatu ez dagien interes handia daukienak, feminismoa matxismoaren pare ipinteko lan handia egin dabelako agian.

Bale, justizia sozialaz egingo dogu berba orduan. Termino

horretan giza bardintasuna, aukera bardintasuna, ongizatea, pobrezia eta errentearen banaketea, lan eskubideak... sartzean dira. Feminismoak eskatzen dauana ez dago justizia sozialak eskatzen dauanatik urrun.

Egia esan ez dakit ondo zergaitik konpartimentetan dogun gizartea, andrak, errefujiaduak, atzerritarrak, jubiladuak, umeak, langileak, langabetuak... Batzuek esango dabe kudeaketarako ezinbestekoa dala baina, eskubide bardinak badaukaguz ez ete da kapitalismoaren tranpa indarrak ahultzeko? Baina egia be bada andra antolatuturik ez badago, bere presentzia erabaki guneeetan ez dagoala bermatuta. Kurduen ejerzito mistoan adibidez andrak goi karguetara ez zirala heltzean ikusita, andren ejerzitoa sortzea ebatzi eben.

2015eko amaierarantza Arratiatik pasau zan Emakumeen Mundu Martxea.

Herrietako andra taldeak eta talde feministak ondo etorria emoteko Lemoan batu ziran nahiz eta bertan andra talderik edo talde feministarik egon ez. Askotan gertatzen da hori.

Bertoko andra askok ez dabe beharrezkotzat jotzen andra talderik egotea. Beste andra batzuek ostera andren sare bat botaten dabe faltan.

Ez dakit inoz ados jarriko garan, nik bitartean justizia sozialari bueltaka jarraituko dot.

**ZERTZEAN**



**SAIOA LARREA**



**BEGI TXINDORRA**

**A**rratiako Gurutze Gorria bizitza osasuntsua bultzatu guran, hilean behin ibilaldiak antolatzen hasi da jubiladu eta pensiodunentzat.

Lehenengo topaketea eginda dago. Urtilaren 29an Larrabetzuko Burdinazko Garrikoaren (PR/BI 254) ibilbidea egin genduan. Hona hemen parte hartu ebenen argazkia. Aupa kuadrila! Primeran pasau genduan.

Hurrengo urtekerea zezeilaren 19an izango da, Otxandio-Oiargan-Otxandio.

Arratiako jubladu edo pensinoduna bazara, Arratiako beste herrietako personak ezetu gura badozuz, taldeko aisialdia gogoko badozu eta naturea maite badozu apuntau zaitez zure herriko jubladuen etxean edo deitu 94 673 62 62 telefonora.

Animau zaitez parte hartzera!

**Arratiako Gurutze Gorria**





**Lorategien Diseinu eta Gauzatzea**  
**Ureztaketa instalazioa**  
**Mantenua eta Inausketa**


**Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea**  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscsl.com



**Ortodontzia**  
**Implanteak**  
**Estetika**

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologoa

Bidebarri 1. beheia  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Hilegieta Zertifikatu: 940  
R.P.S. 21/06



**Ibaigane, S. Coop. Ltda.**

Estazioa, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Tel. 631 33 30 - 631 31 31  
Fax 631 36 15



**EGUNEKO OGIA**  
**vending pan**

**IGORRE**  
Lehendakari Agurte



ZEANURI

Gurasoen kezkak konpartiduteko Guraso Eskola sortu dabe herrian



Hilaren atzen martitzenean batzean dira gurasoak.

Erredakzinoa

Zeanuriko guraso batzuen ekime-  
nez Guraso Eskola sortu dabe he-  
rrian, hezkuntza prozesuan zehar  
sortzean diran gurasoen zalantza  
eta zailtasunak argitu, bideratu eta  
alkarbanatzeko. Etxerako lanak,  
teknologia barriak, dolua, umeen  
bildurrak eta irakurketa prozesua  
dira bertan landuteko asmoa dau-  
kien gaietako batzuk.

Lehenengo batzarra urtailaren  
26an izan zan eta hilean behin ba-  
tzeako asmoa daukie, hileko atzen  
martitzenean arrastiko 18:30etik  
19:30era. Lekua momentuz ez  
da finkoa, Udal Aretoan edo Gaz-

te Lekuan izan daiteke. Hurrengo  
batzarra zezeilaren 23an izango da.

Eskolea guraso guztiai dago  
zabalik; ume txikerrak zein koxko-  
rragoak daukiezanai, hain zuzen  
be. Gurasoen eztabaidagunea  
izango da eta eskola, herria eta  
komunidade osoari lotutako  
gaiak landuko dira bertan; erlijino  
irakasgaia eskolan, autoestimua  
edo-eta bardintasuna, berbarako.  
Gurasoak, batzuetan zalantzak  
eta kezkak konpartiduko dabez,  
beste batzuetan emozinoak eta  
beste batzuetan ikasteko batuko  
dira. Izan be, lantzean behin kon-  
bidauak ekarriko dabez berbaldiak  
edo ikastaroak emoteko.

DIMA

Dimako Udalak UEMAn sartzea erabagi dau



EH Bilduko aldeko botoakaz eta EAJ-PNVko abstenzinoagaz Dimako Udalak UEMAn sartzea ebatzi dau.

Erredakzinoa

Dimak UEMAn sorreran parte  
hartu eban 1991n eta bertan egon  
zan, egoera ekonomikoa zala-eta,  
2009an urten zan arte. Orain  
egoera finantziarioa hobetuta barriro  
be Udalerri Euskaldunen Mankomu-  
nidadean sartutea ebatzi dabe.

2011n Soziolinguistikako Klus-  
terrak egindako euskerearen  
erabilerearen datuak kezkagarriak  
izan ziran dimoztarrentzat. Izan  
be, 1981etik 2011ra euskerearen  
erabilerea sano jaitsi da eta Di-  
mako herria, euskerearen "arnas-  
gune" izatetik, euskerea atzeran-  
tza doan udalerrri izatera pasau da.  
Euskerearen indizea % 87,4 zan  
2011n eta hogeta hamar urtetan,  
hizkuntza gaitasunak behera egin  
dau ia 11 puntutan (% -10,9) eta  
euskerea lehenengo hizkuntza

izateak ia 24 puntutan (% -23,7).  
Etxean nagusi euskerea darabilen  
kopurua be % 22,5 jaitsi da.

Zerbitzuak

UEMAk datu bilketea, diagnos-  
tikoa, erabilera plana, urtez urteko  
kudeaketa plana, hizkuntza pai-  
sajea eta trebakuntza ikastaroak  
eskeintzen ditu, beste zerbitzu  
batzuen artean. "Gure hizkuntza-  
ren osasuna hobetzen lagunduko  
deusku, halanda be, guztiz senda-  
tzeko dimoztar bakotxaren laguntza  
ezinbestekoa da" dinoe Udaletik.

EAJ-PNVren eretxian barriz,  
euskerea bultzatzeko, "UEMAk  
une honetan Dimari eskeini ahal  
deutsazan zerbitzuak egokienak  
ez dirala" eta "beste gauza ba-  
tzuei lehentasuna" emotearen  
aldekoak zirala esan eban lurdana  
Acasuso EAJ-PNVko zinegotziak.

ARRATIA

Jabekuntza ikastaroa andra etorkinentzat

Erredakzinoa

Emigrad@s sin Fronteras alkarteak,  
Arratiako Gurutze Gorriaren eta Arra-  
tiako Udalen Mankomunidadearen  
laguntzeagaz, jabekuntza ikastaroa  
antolatu dau andra etorkinentzat.  
Ikastaroa zezeilaren 22an eta 29an  
eta martiaren 7an izango da, hiru  
astelehen, 10:00etatik 12:00etara  
Arratiako Udalen Mankomunida-  
deko egoitzan, Igorren. Ikastaroak  
Bizkaiko Foru Aldundiko diru lagun-  
tzea dauka. Izena Arratiako Udalen  
Mankomunidadeko Bardintasun  
Zerbitzuan emon behar da.

Ikastaroak kulturartekotasuna eta  
gaiari buruzko sensibilizazioa gura  
dau erreztu. Horretarako, herrialde  
desbardenetan lan arloan andra iza-  
tea zer dan aztertuko da eta ezagu-  
tzarako eta hausnarketarako gunea  
jarriko da martxan, lana eta enple-  
guaren inguruko jarrerak aldatzeko  
helburuagaz. Izan be, ikastaroak  
langabeziak sortutako estereotipo  
bartzertzaileak aldatzea gura dau.



BEDIA

Velatiak Sabino Arana Saria jaso dau

Erredakzinoa

Sabino Arana Fundazioak Be-  
diako Velatia enpresea saritu dau.  
Sari emoteko ekitaldia urtailaren  
31n izan zan Bilboko Arriaga An-  
tzokian. Velatiak ekipo elektrikoak  
egiten ditu, beste batzuen artean,  
telekomunikazio eta aeronau-  
tikako sektoreetarako.

Fundazioaren arabera, saria  
emoteko errazoa "hastapenetatik  
bertatik (Ormazabal, 1967), per-  
sonakazko konpromisoari, enple-  
gua sortzeako konpromisoari eta  
aberastasuna Euskadin eta Euska-  
dientzat sortzeako konpromisoari  
eutsi deusalako" izan zan.

# Begituten deustazunean

**N**egua heldu da, kanpoan hotz egiten dau, Gorbeiaiko haizeak etxeko bentanak gogor astinduten dauz, eta zu kamisa hutsean. Baina pozarren nago atzera be zure alboan egon naitekelako, zure eskuetan, zure laztanen epeltasunean. Orain, begituten deustazunean, arbol dardati baten orbela baino ez naz. Baina udabarria helduko da, eta uda be bai, eta orduan izango naz zure betiko zoro kapela, edo, beharbada, erreka bazterreko itsasontzi paperezkoa, eta hegazkin erraldoi bat umeen eskuetan. Eta udagoieneko tapiza be izango naz biok alkarregaz goroldioaren ganean etzun gaitezan.

Begituten deustazunean, azalean tatuatuta daukadazan letra baltzak lotsatuten dira, gorrituten jataz, zure bihotzeko nontzebarri bihurtuten dira eta taupada bakotxean, zuk jakin barik, nire izena idazten dozu, astiro, hiru golpetan agoskatuta, Nabukovek egin eban lez. Eta, aste birik behin, hor naukazu, kokilduta samar, luzaroan zuri begira, zu noz etorriko, zuk ni eskuetan noz hartuko... zuk niri noz begituko.

Ze, beharbada, ondino ez dozu jakingo, baina zuk begituten deustazunean, nik maite zaitut.



DIMA

Alkarregaz Gure Esku Dagok sinadurak batuko ditu

Erredakzinoa

Zezeilaren 26, 27 eta 28an, Alkarregaz Gure Esku Dago alkarreak sinadurak batuko ditu Diman egingo dan herri galdeketeari zilegitasuna emoteko. Alkarreak lokalean jasoko dira sinadurok. Galdeketea aurrera eroateko herritarren % 10aren sinadurak lortzea nahiko litzateken arren, Alkarregaz Gure Esku Dagoko ki-deak ahalik eta herritar gehien babesa jaso gura dabe. Sinadura bilketea legeak eskatzen dituan berme guztiakaz egingo da, Gure Esku Dago nazionaletik emondako gomendio guztiak segiduta.

Behin sinadurak jasota, itauna adosteko unea dator eta zezeilaren azken zapatu-domekan hasiko dira horretan. Holan, lokaleran hurreratzen diran herritarrak euren ustez galderarik aprobe-na zein izango litzateken adierazoteko aukerea izango dabe.

**Ordutegia**  
Hurrengo ordutegi honetan joan daiteke alkarreak lokalera Diman herri galdeketea egitearen alde sinatuteko: barikuan, hilak 26, 18:00etatik 21:00etara; zapatuan, hilak 27, 11:00etatik 14:30era, eta domekan be, 11:00etatik 14:30era.



BEDIA

"Work kafe" antolatu dau Udalak gazteen proposamenak jasoteko

Erredakzinoa

Zezeilaren 19an, arrastiko zazpi-retan, Bediako 18 eta 30 urte bi-tarteko gazteak konbidauta dagoz liburutegian alkartera eta Udalari euren proposamenak egitera. "Work kafe" honen helburua herriko gazte politikak bideratuteko gazteen ekarpenak jasotea da. Edade tarte horretako 100 gazte inguru dagoz errolatuta herrian. Gazteakaz aurrez aurre berba egiteko Udalak "Work kafe" a pres-tatu dau. "Pentsau dogu 18 urtetik 30 urte arteko gazteria alkartzea euren proposamenak eta herriak euraiketik zer egitea gustauko litzakien edo, entzuteko" azaldu deuto BEGURI Meritxel Lejarza-buru Gazteria zinegotziak. Gazteen preminak, nahiak eta abar dokumentu baten jasoko ditue Udalak Plan estrategikoa egin dagian. Gero Gazte Politika arloak



ondo ikusten badauz ekarpenok, plenoan onartuko da Plana. Lau urteko indarraldia izango dau eta ekintzak bete ahal izateko diru partida bat egongo da urtero-urtero aurrekontuetan.

ZEBERIO

Nazinoarteko bisitak izan dauz Maskiluk proiektua ezetuteko

Sei hilabete pasau dira Zeberion Maskilu konserborea martxan ipini zanetik, eta balantze ona egiten dabe Amaia Quesada eta Iñigo Gallastegi Maskiluko bazkideak. Biak daukie ortua Zeberion. Proiektua Zeberio Udalak bultzatu eban Europako diru laguntzakaz. Politika publiko onaren eredu askorentzat, nazinoarteko bisitak euki dabez proiektua ezetuteko. Orain, herrirako bakarrik ez, eskualde osorako beharrezko azpiegitura dala frogatu gura dabe baserritarrak.



Amaia Quesada eta Iñigo Gallastegi.

Erredakzinoa

Lehenengo hilabeteak batez be ikasteko izan dirala dino, baina uste baino jente gehiago etorri dala euren produktuak botetean sartzera. "Dana dala, ezetutera emotea falta jaku jente gehiago etorri daiten" dino Amaia Qesadak. "Holango proiektu baten sartutakoan, inork ez dau gauza handirik azaltzen, ez montaketearen inguruan, ezta elaborazioaren inguruan be. Horreek ikasten ibili gara. Orain, proiektua martxan dago eta erosoago sentitzen gara", azaldu dau Iñigo Gallastegik. Proiektua martxan ipinteko, osasun araudia betetea ez jakie erreza egin, ze azken finean arauak berberak dira industria handi batentzako zein artisau industria txiki batentzako. Eta elaborazioaren inguruan be, eurak bilatu behar izan dabe informazioa. "Erispide batzuk badagoz baina gauza zehatzik ez. Eta ez da tontakeria bat, arriskutsua izan daiteke ondo egin ezean". Izan be, ondo egin ezean botulismo arriskua dago eta botulismoak heriotzea ekarri leike. Horregaitik, sei hilabete honeetan lehentasuna ikastea izan dala dino, "zuhur"

jokatu behar da eta. Konserborea martxan ipinteko bazkideak inbersinoa egin eta batez be beharra egin dabe dana montetako. Orain, kudeaketa lana egin behar izango dabe. Bazkide ez diranak, Zeberio konserborea erabiltzen dabenean diru bat pagua behar dabe "gastuak kurbiduteko (makinak, argia, ura...)", baina ez Maskiluk etekinik aterateko.

**Eskualdeak behar eban zer-bitzua**  
Maskilun hogeia lagunetik gora eta hamaika proiektu batzean dira. Kanpoko jentea be etorten da euren produktuak botetean sartzeako. "Konserborea jente askok erabili dau hile honeetan. Espero genduan baino askoz jente gehiago etorri da. Holan izan behar da, ze proiektu hau eskualderako tresna bat da eta jentea enbotatzera ez bada etorten ez dauka zentzurik" dino Iñigo Gallastegik. Gehienak eskualdekoak izan arren, Araialde, Algorta eta Balmasedako eloizleak be etorri dira euren produktuak enbotatzera. Eta beste eskualde batzuetatik, konserbera bat ipinteko informazio eske be bai. Azken

finean, beste eskualdeetan ez dago holango azpiegiturarik. Hurren dagoana Leintz-Gatzagako Jaki On konserborea da. Eta hau beste proiektu mota bat da, "ez da geurea moduko konserbera kolektibo txiki bat". Proiektu honetan parte hartu dabenen ustez, eskualde bakoitzean konserbera bat egotea beharrezkoa da. "Gure helburua ez da negozio bat ipintea, beharrak betetea baino" dino Amaia Qesadak.

**Erronkak**  
Zeberio konserberan enbotatutako produktuak hori adierazoten dauan zigilua daukie etiketan. Orain arte udako produktuak enbotau dabez Maskilun; tomate, kalabazin purea, zerbak, lekak, erremolatxa, piparrak, azenarioa eta pistoa batez be. Neguan be jarraipena emotea da erronkea eta beste errezeta batzuk sortu behar dabez horretarako. "Dana dala, erronkarik handiena proiektu hau eskualdearentzako beharrezkoa dala frogatzea da. Udalak garrantzia handia dauka proiektuan: eraikina udalarena da, udalak egin dau inbersinoaren zatirik handiena, eta alokairua udalari ordaintzen deusagu, kontratua udalagaz daukagu eta. Garrantzia hori frogatzeko 10 urte daukaguz, horixe da-eta gure kontratu epea. Gauza batzuk egin beharko dira, adibidez, produktu desbardinak ekoiztu eta formakuntzea emon. Uste dogu hori izan daitekela gure papela. Formakuntza emotea enbotau gura dabeneztat zein holango proiektu bat montau gura dabeneztat" dino Gallastegik.

**Proiektua ezetuteko bisitak**  
Sei hilabete honeetan 30 bisita izan dabez Maskilun, tartean nazinoartekoak. Estatu Batuetatik, Argentinatik, Mexikotik, Hego Ameriketako talde indigenak... etorri dira Zeberiora ekimena interesantea dala eretxita. Izan be, "Udalak parte hartze handia izan dau eta politika publikoen adibide on bat da" bazkideen esanetan.



ARRATIA

Gizonentzako Gunea antolatu gura dau AUMko Bardintasun Zerbitzuak



Gizonduz programako ikastaro baten irudia. Argazkia: AUM.

Erredakzinoa

Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzuak urteak daroa Emakundegaz batera, Gizonduz programa antolatzen Arratian. Oraingoan, pausu bat gehiago emon eta, udalakaz batera, Arratiako Gizonentzako Gunea antolatu gura dau, urteko programazinoa zehaztuz.

Gizonentzako Gune hau, "andren eta gizonen bardintasuna zer dan eta arlo personalean, sozialean eta profesionalean bardintasunaren alde zer egin leikien jakin gura dabenentzat da, horrer buruzko prestakuntza jaso edo horretan sakondu gura dabenentzat. Hori guztia, andra

eta gizonen bardintasunaren aldeko aldaketa soziala sustatuko daben eragile izan daitezana" dino Miren Urresti Mankomunitateko Bardintasun Teknikariak.

**WhatsApp taldea**

Arratiako Gizonen Gunean parte hartu gura dabenak izena eta eskuko telefonoko zenbakia emon behar dabez, whatsapppeko taldean sartzeako, zezeilaren 26a baino lehen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzuan, 94 631 17 17 telefonora deituta edo berdintasuna.arratia@bizkaia.org helbidera idatzita.

Taldea eginda dagoanean, lehen batzarra antolatuko da, programazinoa zehazten hasteko.

ARRATIA

Gorbeia izeneko app turistikoa eta irudi barria

Erredakzinoa

Gorbeia eta inguruko herriak 7.500 turista inguruk bisitau ebezan 2015ean. Gehienak gau bat edo bi egin eben gurean. Egonaldiak luzeagoak izan daitezana, Gorbeia Gune Turistikoa, eremuko ostatuak, gastronomia, natura eta esperientziak jasoten dauzan app bat sortu dau, eta irudia barriztu egin dau. Gorbeia App-a eskuragarri dago Apple Store eta Google Play webguneeetan.

Gorbeia mendiaren ingurua erakargarria da turistentzat. "Euskadiren bihotz berdea gara eta gune zoragarriak daukaguz: Gorbeia Parke Naturala, Euskadiko handiena; Urkiolako Parke Naturala, Ullibarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiak, Baltzola eta Mairulegorretako kobak, Itxinako biotopoa edota Goiuriko ur-jauzia" esan eban Txomin Ocerinjauregik, Gorbeialde Landa

Garapenerako Elkarteko presidentek aurkezpenean. Turista eta bisitariak bertan denpora luzeagoa egiteko, Gorbeia App turistikoa egonaldia antolatzen lagundu leikie. "Turistak edo bisitariak klik bategaz informazino guztia eskuratuko dabe: non lo egin, non bazkaldu, zer egin...". Aplikazino barria deskargetan daben lehenengo 500 lagunentarte, gau bateko egonaldia eta bisita gidatu pare bat zozketatuko dira.

Gontzal Esteban, irudi barria sortu dauan La Factoria Graficako arduradunaren arabera, oraingo irudia indartsuagoa da eta Gorbeia baliabide bereizgarrietan oinarrituta dago: natura, ingurunea, kultura, gastronomia, ohiturak eta abar.

Ekitaldiak

Urtean zehar Gorbeia inguruko herrietan egiteko ekintza programa zabala prestatu dau Gorbeia



Gune Turistikoa. Berrogeta hamar ekintza inguru dira. Abere eta artisau azokak, jaiak, herri martxak, mendi martxak... Lehenengo, zezeilaren 27tik martiaren 2ra arte ospatuko diran Miniature gastronomia jardunaldiak izango da. Ekaitz Diaz de Garaio Zuiako Kuadrillako presidentearen arabera, jardunaldiok "Murgia eta Gorbeia pintxo uriburu bihurtuko dauan miniatuazko sukaldaritza jardunaldiak izango dira. Gorbeian izango doguz pintxo lehiaketa nagusien irabazleak, pintxogile onenak, Master Chef-eko umeak...". Pintxo eta Gozoki lehiaketak be egongo dira.

Gorbeia Gune Turistikoa

Bizkaiko Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteak eta Arabako Zuiako Kuadrillak osotuten dabe Gorbeia Gune Turistikoa, turismo arloan alkarlanean jarduteko sortutakoa. Arratiako herri guztiak, Ubide eta Zeberio eremu honen barruan dagoz.

Gorbeia inguruak 36.971 biztanle ditu. Horreetatik 27.139 Bizkaiko aldean bizi dira eta 9.652 Arabakoan. Gorbeialde Landa Garapenerako alkarleak, garapen sozio-ekonomikoa Arratia-Nerbioi eremuan bultzatzeko egiten dau behar. Turismo azpiegitureari jagokonean, Bizkaia aldean 30 ostatu dagoz, 760 leku; 377 taberna eta jatetxe, eta 87 baserri eta artisau ekoizle.



Ekaitz Diaz de Garaio, Txomin Ozerinjauregi eta Gontzal Esteban.

BEDIA

Frontoia konponduta eta zabalik

Erredakzinoa

Zezeilaren 1etik barriro be pelotan jokatu daiteke Bediako frontoian. 2014ko garagarrian suak hartu eban eta hamazortzi hila-bete eta 266.000 euro kostau da konpondutea. Gabonetako ekitaldi batzuetarako hasi ziran frontoia erabilten bediazarrak eta hilaren hasikeratik pelotan jokatuteko erabili daiteke barriro.

Frontoia erabilteko umeak liburutegian eskatu leikie giltza, Zumba ikastaroak emoten dira bertan daborduko eta palan edo pelotan jokatuteko, jentek alkilau leike frontoia. Suagaitik

etendako Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzako "Bizkaia Harrobia 2020" kirol teknifikazino proiektuko entrenamentuak barriro martxan ipinteko lanean dabil Udala. Izan be, Bedia 2012an sartu zan proiektuan. Bedia ondo kokatuta dagoala dino Aitor Sorriketa alkateak eta partaide diran pelotari gazteak frontoia erabilten eben sutea izan arte. Orduan, "parau egin genduan, baina orain badatoz barriro" dino alkateak.

Frontoia oinarizko azpiegitura da herrian, kirol eta kulturarako funtsezkoa. Izan be, erabilera ugari espazioa be bada, aproposa

udalak zein herriko eragileak antolatutako ekintzak bertan egiteko.

**Teilatua ez hain kaltetuta**

Urte bete eta erdi frontoi barik egoteaz gainera, 2015ean egindako inbersino bakarra frontoia konpondutea izan zan. Frontoia konponduteko proiektuaren kostua 375.030 euro zan eta 374.991 eurotan adjudikau zan. Zorionez, teilatua ez egoan uste bezain kaltetuta eta azkenean aurreikusitakoa baino 108.990 euro gitxiago izan da. "Sano ondo jatorku. Aseguruagaz konponduteko be kantidade txikiagoa izanda, hobe izango da. Horrek 2016ko



Bediako frontoia.

aurrekontuetan dirua liberau egiten dau, obra eta inbersino ge-

hiago egiteko aurtan" dino Aitor Sorriketak.



**ARATUSTEAK**

# *Inauterietan kolore ugari kale bazter guztietan*

Inauteri edo Aratusteetan umore ona eta sormen handia erakutsi dabe aurten be arratiarrak. Mozorro koloretsuak jantzita eta jaigiroan murgilduta, Arratian eta Arratiatik kanpo ospatu dabez negu amaierako jairik lotsabakoenak. Horren lekuko, argazki asko jaso doguz BEGITUN. Hareetako batzuk dakarguz orrialdeotara, umore on eta sormen galant hori irakurleakaz konpartiduteko.









MENDIA

Tontorrari ekiteko eguraldi onaren zain jarraituten dau Txikonek



Erredakzinoa

BEGITU zarratukeran, tontorre-  
ra abiatzeko eguraldi aldaketa  
egonkor baten zain egozan Txikon

eta bere espedizinokideak. Igone  
Mariezkurrenak Txikonen blogean  
informautakoaren arabera, espe-  
dizinokide batzuk itxi egin dabe  
saiakerea eta bertan dagozan es-

kalatzaileak talde bakarra egingo  
dabe tontorrari ekiteko.

Negua hasi zanean Nanga Par-  
bateko (8.126 m.) Behe Kanpa-  
lekua dagoan Diamir isurialdean,  
bederatzi eskalatzaile egozan.  
Hareetatik Alex Txikonek, Ali  
"Sadpara"k, Simone Morok eta  
Tamara Lungerrrek bakarrik jarrai-  
tuten dabela eta talde bakarra  
egingo dabela azaldu dau Ma-  
riezkurrenak.

Denpora lar Behe Kanpalekuan

Aste bi baino gehiago dira 5.100  
metro baino gorago ezin izan  
dabela jardun eta aklimatazinoa  
berreskuratzeko, bigarren edo  
hirugarren kanpalekuan gauren  
bat egin beharko dabe. Horreta-  
rako eguraldi oneko lehioa behar  
da. "Ondoren aurreneko lehio  
iraunkorra heldu bezain laster,  
barriro be Behe Kanpalekutik go-  
rantza abiatuko lirатеке, oraingo  
honetan gailurrerantza".

FUTBOLA

Arratia bigarren dago liderrarengandik 5 puntutara

Erredakzinoa

Zezeilaren 7an, Arratia Futbol Tal-  
deak Gasteizko Neskak, liderraren  
kontra jokatu eban Gasteizen.  
Gasteizko taldeak 5 puntutako  
bentajea eukan. Partidua 2-2  
amaitu zan, bentajea bere ho-  
rretan manteniduz. Hori dala eta,  
Arratia bigarren doa hirugarrena-  
gaz bardinduta.

Zezeilaren 13-14ko zapatu-  
domekan atsedenaldia euki eben  
andrazkoen ligan.

Hurrengo partidua etxean joka-  
tuko dau Arratiak Ugao taldearen  
kontra.

Gizonak

Gizonak be bina bardindu eben

atzen partidua. Igorren izan zan,  
Derioren kontra.

Zezeilaren 6an, barriz, Padura-  
ren kontra jokatu eban Arratiak.  
Galdu egin eban 2-0. Sailkape-  
nean 12. da Arratia.

Hurrengo partidua, Gatikaren  
kontra izango da, etxetik kanpo.



Argazkia: Javi Urola.

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde

\*

"Albait gehienok apur bat emon daigun  
gitxi batzuk dana emon ez dagien".


Izan zeu be Begitu-laguna!



MENDIA

Bilbao Mendi Film Festival  
 jaialdiko filmak Igorren

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako Mendi Amesgarriak zikloan, Bilbao Mendi Film Festivalen parte hartutako hainbat film egongo dira. Igorreko Kultur Etxean, hilaren 19an eta 26an, 20:00etan izango dira saiook. Saio bakotxean, Bilbao Mendi Film Festivalen izandako lau film labur ikusteko aukerea izango da.



Piztu proiektauko da Igorren.

Erredakzinoa

Mendi Amesgarrien lehenengo saioan, zezeilaren 19an, Mikel Urrestiren *Piztu*, Josh Lowell-en *A Line across the Sky*, Anthony Bonnelloren *Eclipse* eta Jon Herranz-en *Panorama* proiektauko dira. *Piztu* filmak 2015eko Bilbao Mendi Film Festival-eko Mendi Short izeneko film labur amateur onenari saria irabazi eban. Irudiaren kalidadea, edizinoa jagoteko gaitasuna eta gidioa hartu ebazan kontuan epaimahaiak saria emoteko. Lowell-en *A Line across the Sky* filmak Tommy Caldwell eta Alex Honnold-en abenturak Fitz Roy-ren zeharbidean kontetan dauz. Fitz Roy ibilbidean, zazpi tontor eta 4.000 metroko eskalada bertikala dagoz. Biaje honen-gaitik Caldwelllek eta Honnoldek Urrezko Pioleta lortu eben. Filmak 40 minutuko iraupena dauka.

Hurrengo filman, *Eclipsen*, Zirkulu Polar Artikoan dagoan Svalbarderako biajea kontetan dau Bonellok. Biajea eguzki eklipse baten aurrean, eskiatzaileen argazkiak egiteko egin eben talde batek eta argazkilariak. Klimatologia eta aldaketa klimatikoaren gainean be egiten dau berba 30 minutuko film honek. Lehenengo saioko azken filma Jon Herranz zuzendariaren *Panorama* filma izango da. Edu Marin eta bere aita Francisco Marin, 62 urtekoa, Dolomitasen dagoan Panorama mendia eskalatzen saiatu ziran eta euren artekoa eta mendigazko hartu-emona kontetan dau filmak. **Bigarren saioa hurrengo barrikuan** Hurrengo saioan, Ben Sturgulewskiren *The Warmth of Winter*, Joey Schuslery eta Karl Thompson-en *55 Hours in Mexico*, Nick Rosen-en *High and Mighty* eta Pawel Wysoczanski-ren *Jurek* filmen txandea izango da. *The Warmth of Winter* (neguko epeltasuna) 5 minutuko bideo musikala da. Japoniako iparraldeko irlan dagoan edur berezia eta egun eguzkitsuetan bertan egiten diran eski jardunaldiak ditu ardatz.

Astegoiene berezi bat kontetan dau *55 Hours in Mexico* 9 minutuko film laburrak. Protagonistak bariku baten Veracruz-era abioiz joan ostean, Iparramerikako hirugarren mendirik altuena igo, eskietan bajatu eta astelehenean beharrera bueltauko dira. Rosen-en *High and Mighty* filma be nahiko laburra da, 18 minutukoa. Bertan, Daniel Woods-ek The Process pareta eskalatzen dau. Eta saioari eta zikloari amaierea emoteko, Jurek Kukuzkaren bizitza kontetan dauan *Jurek*, Pawel Wysoczanski zuzendari poloniararren dokumentala izango da Igorren. Kukuzka oinetako garbitzaile izatetik aberatsa izatera pasau zan, behargin sozialista izatetik hedabideetako izarra izatera. Eta "Himalaiako koroa" lortzeako lehian egon zan. Dokumentalak 72 minutuko iraupena dauka.

**Argazki erakusketea** Igorreko Kultur Etxeko erakusketa aretoan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako *Mendirik Mendi* argazki erakusketea dago ikusgai. Bertan, Ganzabaleko bazkideak igazko urtean zehar ateratako argazkirik ederrenak erakusten dira hilaren 29ra arte.

SOKATIREA

Euskal Herriko txapela irabazi  
 eta Munduko Txapelketan  
 egongo da Badaiotz taldea

Erredakzinoa

Badaiotz sokatira taldeak Euskal Herriko txapela irabazi eban Idiazabalaren zezeilaren 6an, 500 kiloko mailan. Ruth Linaza Lemoako tiralariak eta Izaskun Atutxa dimoztarrak Gasteizko Badaiotz taldean tiratuten dabe. Finala gogorra izan zala azaldu deutso BEGITURI Ruth Linazak. Hiru talde egozan lehian: Badaiotz, Ibarra eta Gaztedi. Finalean, bitan irabazi behar eben txapela lortzeako. Lehenengotik, Gaztedi taldeagaz

lehenengo postuan egoteko, eta gero bardinketea hausteko barriro be irabazi egin behar. Baina holan egin eben eta txapela irabazi. **Munduko Txapelketea** Hilaren 18tik 21era, Munduko Txapelketea jokatu da Volendam-en (Holanda). Badaiotz talde moduan egongo da 500 kilokoan. Beste kategorietan, Euskal Selektzio moduan. Munduko Txapela lortzea gatxa dala dino Linazak, sano aurkari gogorrak ditue eta: Taiwan, Txina,



Ruth Linaza.

Hegoafrika eta Japonia, barbarako. Dana dala, ez litzateke euren lehenengo Munduko Txapela izango. Izan be, 2012an Munduko Txapelketea Badaiotzek irabazi eban.

MENDIA

II. Kolazinoko Mendi  
 Eguneko lasterketak  
 igazkoak baino  
 gogorragoak izango dira

Mendi martxeak, mendi lasterketeak eta BTT lasterketeak osotuten dabe martiaren 19an jokatuco diran Kolazinoko Mendi Eguneko probak.



Jokin Zabala, Kolazino Mendi Eguneko antolakuntzako, Davib Garcia "Txiki" igazko mendiko lasterketako irabazleagaz.

Erredakzinoa

Ibilbideak prest dagoz eta gura dabenak egin ahal dauz alde z aurretik markak ipinita dagoz eta. Lasterketen ostean, bazkaria eta erromeria egongo da. Izen emotea zabalik dago Kolazinoko Mendi Eguneko webgunean, <https://kolazinokomendieguna.wordpress.com/>. Mendi martxak 20 km. eta 1.300 m.ko desnibel positiboa dauka. Santiagozar, Mandoia eta Zeata mendi tontorretatik pasauko da. Mendi lasterketak, 26 km. eta 1.500 metroko desnibel positiboa izango dau. Martxearen ibilbidea legez, lasterketearena be Santiagozar, Mandoia eta Zeata tontorretatik pasauko da. Atzen honetako 20. km.an, 800 metrotako ibilbide kronometraua

egongo da, sari bereziagaz. Bizkleta martxak 34 km. izango ditu eta 1.500eko desnibel positiboa. Mandoiako tontorra izango dau punturik altuena eta Zekutze, Artanda eta Upo mendietako lurretatik pasauko da. **Izen emotea** Hiru proba honeetatik baten parte hartzeako izena emotean, bazkarirako be emon daiteke izena. Mendian federatuta dagozanak 21 euro pagau beharko dabe bazkaria gura badabe eta 19 bazkaririk ez badabe gura. Federauta ez dagozanak euro bi gehiago. Parte hartzaileen lagun eta familiak be parte hartu ahal izango dabe bazkarian. Honeek txosnan erosi ahal izango dabez tiketak 4 euroko prezioan. Bazkalostean erromeria egongo da.





JANTZEA

Aiko taldeak *Jotamentala*,  
jotearen gaineko  
dokumentala, estrenau dau

Estreinaldia Bilbon izan zan zezeilaren 12an.

Erredakzinoa

Aiko taldeak jotea "erabateko" jantzatat dauka. "Jatorrian Eleizak pekatuzkotzat hartu eban, eta euskal nazionalismoak garbi eta kasto bilakatu. Landa munduari lotuta dago, betidanik urikoa izan dan eta dan arren, etenbarik barrizatzen dana eta gaur egun guztiz indarrean dagoan gaur egungo kultur adierazpena" dinoe.

Dokumentalean, Aikoko kideez gainera, Cesc Gelabert edo Jon Maya lango jantzariak eta koreografoak eta Juan Antonio Urbeltz, Jon Pertika, Iñaki Irigoyen edo Jose Inazio Ansorena folklore ikerlariak euren testigantzea es-

keintzen dabe. Filmak artxiboko irudiak eta argazkiak be baditu, 1955ean Orson Wellesek BBC katerako egin eban *The Land of the Basques* dokumentalaren sekuentzia bat barne.

**Interneteko plataformea**  
*Jotamentala*, Aiko taldeak Interneten jotearen gaineko plataformea martxan ipinteko egitasmo handiaren barruan sartzean da. Plataforma horretan grabazioak, partiturak, idazkiak, gogoetak, proposamen didaktikoak, arietak, pausuak eta jantza herriko horri buruz ekarpena egin leiken edozein elementu sartu ahal izango da.



Kepa Artetxe eta Larraitx Artetxe.

TAILERRA

Bizikletearen  
mantenimenturako  
ikastaroa Artean  
hilaren 19 eta 26an

Erredakzinoa

Bizikletearen oinarrizko mantenimentu eta konponketetako ikastaroa antolatu dau AKKt (Arteako Kirol, Kultura eta Euskera Taldeak) Kultur Etxean. Ikastaroak saio bi izango ditu arrastiko seiretan; lehenengoa zezeilaren 19an izango da eta hurrengoa hurrengo barikuan, hilak 26.

Lehenengo saioan, pinoiak erreguletan, katea konponduten eta bizikletea behar dan moduan garbituten ikasiko dabe partaideak. Hurrengo saioan, bakotxak bere bizikletea eroan eta ikasitakoa modu praktikoan erabili, zalantzak argitu edo-eta egin behar diran konponketa txikiak egiteko aukerea izango dau.



MUSIKEA

Enkore Kiñu  
Gaztetxean



Erredakzinoa

Zezeilaren 19an, Enkore taldeak kontzertua eskeiniko dau Igorreko Kiñun. 20:30ean izango da hitzordua, baina Gaztetxeak ordu erdi lehenago zabalduko ditu ateak. Hiru euroko prezioa izango dau sarrereak.

Enkore rock taldea Bilboko Errekalde auzoan sortu zan 2009an. Harrezkeroztik hiru disko kaleratu ditu, *Faktore komunak* (Baga-biga, 2012), *Kanala* (Elkar/Oihuka, 2014) eta *E* (Baga-biga, 2015). Sano kantu ezagunak ditu "Beti gazte", "Dantzan, dantzan", "Gure ereserkia" edo "Bihotz ezkutua", beste batzuen artean. Enkore taldearen kantu askok Gaztea irrati Top Gaztea zerrendako lehen postuak lortu dabez.

AKKB

AKKBren  
Bazkide Eguna

Erredakzinoa

AKKBk (Areatzako Kirol eta Kultur Batzordea) Bazkide Eguna ospatuko dau zezeilaren 27an. Horretarako egun osoko jaia prestatzen dabilz. Bazkidetza prozesua be zabaldu dabe. Igaz 326 bazkide lortu ebezan eta aurten zenbaki hori hobetutea espero dabe. Bazkideen artean, herriko 41 negozio dagoz AKKBri lagunduten.

Bazkideak bazkaria izango dabe Areatzako Hotelean eta bazkalostean, III. AKKB Frontenis Txapelketaren finala jokatuiko da. Hilaren 15, 17 eta 22an, Areatzako Udaletxeko hirugarren solairuko gelan, AKKB bazkide egin eta bazkarirako izena emon daiteke, 19:30etik 20:30era bitartean.



**Gure**  
ikastetxeak  
**Euskalduna**  
kalidadezkoa  
**herrikoia**

**JB Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Artea

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**I. Zubizarreta HLHI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

**Haur Hezwuntza**

**Lehen Hezwuntza**

**Derrigorrezko Bigarren Hezwuntza**

**Datxilergoa**

**Hezwuntza Zinloa**

2 urtetik 18ra

**Abel Lapatza Iza**

Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima

946 317 252  
608 287 249

Bizkaifisios SLk  
bi zentro ditu

**Fisioterapia Zentroa Igorre**

Ellexalde 4  
Telefona 94 631 55 08

**Andra Mari Klinika**

Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1. Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

**ARA OTZ**

Landegian O Jabetzen!

**FISIK**

FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA

Tel. 94 685 11 16

LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitetz bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburetan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**GARANTXE Autoeskola**

TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ

Balmenak: A1, A, B17, B

Lehendakari Agirre 31  
Telefono: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net



BERTSOLARITZEA

Arratia Busturialdearen  
 kontra BBK Sariketako  
 lehenengo kanporaketan

Erredakzinoa

Zezeilaren 17an, Bertsolari Gazteen 24. Sariketako lehenengo kanporaketea jokatu da Igorren. Bertan Arratiako taldea eta Busturialdekoa neurtuko dira. Finala Bilboko Kafe Antzokian izango da martiaren 18an.

Aurten zortzi eskualdek har-

tuko dabe parte lehan: Arratia, Busturialdea, Durangaldea, Enkarterri-Ezkerraldea, Hego Uribe, Lea-Artibai, Uribe-Butroe eta Uribe-Kosta. Talde bakotxean sei bertsolari egongo dira, edadearen arabera multzo bitan. A multzoa 18 urte artekoak osotuko dabe, eta 18 eta 24 urte bitarteko bertsolariak B multzoa.

Kanporaketa bakotxean talde bi egongo dira bata bestearen kontra; halandaze, lau kanporaketa saio izango dira guztira. Hortik lau taldek egingo dabe aurrera. Finalurre saio bi egongo dira, eta hortik urtengo dabe finalistak; talde bi finalerako.

Sariatari be aldaketak dagoz 24. edizino honetan. Izan be, dietak danontzako bardinak izango dira saioetan, eta sari kolektibo bat be egongo da.

Epaimahaia hiru bertsolarik osotuko dabe, tartean Juanjo Respaldiza Orozkokoa seguru askoan, eta gai-jartzaileak Bertsozale Elkartearen gai-jartzaile taldetik bideratuko dira.

ZERTU

Zertu Kultur Elkarteko Batzar  
 Orokor berezia aurtengoa

Zertu Kultur Elkarteko Batzar Orokorra zezeilaren 26an

Igorreko Kultur Etxean izango da arrastiko 19:00etan.

Erredakzinoa

Orain arte, Zertuko kideak bakarrik egon dira BEGITU argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteko Batzar Orokorrean. Zertuko kideak alkarteak sortu ebenak eta ordutik alkarteko zuzendaritzako kide izan diranak osotuten dabe. Alkartean

Zertukideez gainera, Begitu-lagunak be badagoz, aldizkaria diruz lagunduz alkartearen ezinbesteko zutabe diranak. Igazko batzarrean eztabaida sortu zan Begitu-lagunak alkartean izan behar eben papelaren inguruan. Bertan ebatzi zan Begitu-lagunak Zertuko proiektuak daukien konpromisoa balorau egin

behar dala eta Batzar Orokorrean parte hartzeako eskubidea emon behar jakiera. Horregaitik aurten 42 Zertukideez gainera, 340 Begitu-lagun inguruk izango dabe Batzar Orokorrean eretxia emoteko eta alkartearen bidea marketako ebatziak hartzeako aukerea.



MUSIKEA

Aneika Ara taldearen  
 kontzertua Igorren



Aneika Ara taldea kontzertu baten.

Erredakzinoa

Zezeilaren 20an, iluntzeko 21:00etan, Aneika Ara taldeak kontzertua eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxean. Taldea Zigor Iturbe igorretarrak (gitarra eta abotsa), Argibel Euba galdakaoztarrak (bateria) eta Alex Lopez amurrioztarrak (bajua) osotuten dabe.

Rockaren ikuspegi propioa

dauka Aneika Ara taldeak. Konsumo azkarreko musikeari uko egiten deutso eta landutako erritmo eta harmoniak ditue. Rock klasikoaren erreferentziak eta 90eko hamarkadako *slowcore* taldeenak ditue, baina pop kantuak, instrumentu hutsezko rock pasarteak, eta psikodeliaz zipriztindutako folka be topau daiteke euren musikan.

DUNBA

Inauteriak

Dimako Ugarana ikastetxeko  
 ikasleak

Kaixo lagunok, pasau dira Inauteriak eta Santa Agedako koplak kantetako eguna. Dimako eskolan lanpetuta ibili gara egun horreetan baina oso gustura ibili gara, benetan be! Arratiako koroa Santa Ageda bezperan etorri jakun Dimara kopla zaharrak kantetan. Eskola osoa bertan izan zan hainbat gurasogaz batera.

Koroak amaitu ebanean, Lehen Hezkuntzako ikasleok Dimako auzoetatik, Lamindaotik, Obatik, Artaunetik, Indusitik... ibili ginan kantuan. Zenbat auzo eta zenbat auzokide guri gustura entzuten. Haur Hezkuntzakoak, oster, herritik ibili ginan kantuan. Saioa andereñoa aurretik joian txistua jotzen, ikasle, guraso eta irakasleok atzetik koplak abestu eta abestu ibili ginan. A ze poza!

Horrenbeste ibili ostean eskolara kantsauta ailegau ginan. Bazkaldu ostean herriko bertsolari eta trikitilari batzuk etorri ziran gurera abestuten. Hareek bai umorea!

Hurrengo egunean Inauteriak ospatu genduzan. Antxinako giza-kientzat inauteriak urtaro bat agurtzean eta beste barri bat hastean hartu eben esangura berezia. Abereak hartuz beste lurralde batzuetara jo behar eben janari bila. Beraz, murrizaldiak, janari eskasia eta abar ezetu behar izan ebezen. Honen aurrean, bai janariz, bai jantzaz, bai edariz hornitutako jai batez agurtzen eben aurreko urtaroa.

Diman bere, usadioari jarraituz, Euskal Inauteriak ospatu genduzan. Horretarako lurralde desbardinetako Inauterietako personaje esanguratsuenak, entzutetsuenak... ekarri genduzan gogora.

Aurtengo gaia, goian aitatu izan dogun moduan Euskal Inauteriak izan da, "Norberak norberea, alkarregaz guztiona" lemapean.



Dimako ikasleak herritik kantari, Agate Deuna bezperan.

Goizeko hamaikak aldera kalejiran atera ginan Dimako herrian. Kalejira koloretsu eta zalapartatsua izan zan. Batetik kaldereruak ateratzen daben burrundadea Inauteriai ondo etorria emoten, eta bestetik joaldunak arranak jo eta jo parau barik. Durundua be lgorretik entzungo zan! Seguru baietz!

Kalejirea frontoian bukatu gen-

duan eta bertan ekitaldiari hasikerea emon geuntsan.

Gure lema kontuan izanda, koloretako puzzle bat osotu genduan. Maila bakotxeko ikasleak egindako hormairudi erraldoian, egokitutako puzzle zatia jarri eben euren ekitalditxoan egin aurretik.

Mamuxarroak, lamiak, kaldere-roak, txatxoak, markitosak, txan-

txoak, kaskarotak, kotilungorriak, joaldunak, zapurrak, zamaltzainak... ez dira falta izan Diman. Jantza guztiak amaituta egon ziranean, puzzlea bere osotuta geratu zan. Danon parte hartzea ezinbestekoa izan zan lan bateratu eta izugarria lortzeako. Horren ostean, argazkitxoak atera ziran eta Nafarroako martxeagaz eta danon parte hartzeagaz, gurasoak barne, amaierea emon geuntsan ekitaldiari. Datorren urtera arte!





## AGENDEA

### ZEZEILAK 16 BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 19ra arte, Udalak eraturako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik liburutegian. Ikastaroak: Zeinu hizkuntza; Sukaldaritzea (oinarrizkoa); Josten ikasi (oinarrizko konponketak).

#### IGORRE

Martiaren 15era arte, Imersoaren tratamendu eta baldintzakaz Fiteroko bainuetxera joateko izena emoteko epea. Jubiladuen Txokoan.

Hilaren 29ra arte, Ganzabal Mendi Taldearen argazki erakusketea Mendiñik Mendi. Lasarte Aretoan.

11:00etatik 13:00etara, hilaren 18ra arte, Gurutze Gorriak antolatuta, jubiladuentzako eskuko telefonoaren erabilerearen gaineko ikastaroa. Kultur Etxean.

### ZEZEILAK 17 AREATZA

19:30ean, AKKBko bazkide izateko eta AKKB Eguneko bazkarirako izen emotea. Udaletxeko hirugarren solairuko gelan.

#### ARTEA

20:00etan, TTIPari ez rap-a. Kultur Etxean.

#### BEDIA

19:00etan Jai Batzordearen lehenengo batzarra. Udaletxean.

#### IGORRE

BBK Bertso Sariketea Kultur Etxean.

### ZEZEILAK 18 DIMA

19:00etan, Jai Batzordea osotuteko batzarra. Udaletxeko batzar gelan.

#### IGORRE

20:00etan, Zine-kluba. *Lamerica* (Gianni Amelio, 1994). Lasarte Aretoan.

### ZEZEILAK 19 ARTEA

18:00etan, bizikletak konpondu eta mantenimenturako tailerra.

#### BEDIA

19:00etan, Work kafe Bediako gazteakaz.

Liburutegian.

#### DIMA

Mendi ibilaldia, Otxandio-Ollargan-Otxandio. 14 km.ko ibilbide erreza Otxandioko eskoletatik urtenda. Izen emotea, udaletxean, Jubiladuen txokoan edo Gurutze Gorrian (Igorre).

#### IGORRE

20:00etan, Mendi Amesgarriak. Bilbao Mendi Film Festivaleko filmak.

20:30ean, Enkore taldea Kiñu Gaztetxean.

#### LEMOA

Artisau kremak ikastaroan izena emoteko

azken eguna. Udaleko Kultura Zerbitzuan.

### ZEZEILAK 20 ARTEA

10:00etan, Gogoia kultur dinamika saioa.

#### IGORRE

08:30ean, Ibilaldia auzorik auzo. Ibilbidea: Aretoa-Txorietye-Poligonoa-Elezkao-San Migel Txiki-Olazabal-Santuru-Aretoa. Udalak antolatuta Igorreko jubiladuen laguntzeagaz. Jubiladuen Txokoaren aurrean.

21:00etan, Aneika Ara taldearen kontzertua



## Kontu kantoï ipuin kontalariak Igorren

Zezeilaren 19an, arrastiko 18:30ean Kontu kantoï ipuin kontalari eta marrazkilariak umeentzako saioa eskeiniko dabe Igorreko Kultur Etxean. Ipuinak kontau bitartean, marrazkiak egiten dabez Kontu kantoïkoak.

Kultur Etxean.

### ZEZEILAK 21 AREATZA

08:00etan, Lamino Mendi Taldearen urtekerea.

Eibar. Kalamua eta Urko mendiak. 14 km. 800 metroko desnibela. Eleizako portikuan.

#### DIMA

11:00etan, Igitie Arratia Baserritar Agroekologikoen azokea.

#### IGORRE

17:00etan, zinea, *Koko dragoi txikia*; 19:30ean, zinea *La novia*. Lasarte Aretoan.

#### ZEBERIO

Austarri Mendi Taldeak ibilaldia Ulizar-Urkietan. 19:30ean zinea *La familia Belier*. Plazako ermitan.

### ZEZEILAK 22 AREATZA

19:30ean, AKKBko bazkide izateko eta AKKB Eguneko bazkarirako izen emotea. Udaletxeko hirugarren solairuko gelan.

#### IGORRE

10:00etan, andra etorkinentzako jabekuntza ikastaroa. Mankomunidadeko egoitzan.

### ZEZEILAK 23 ZEANURI

18:30ean, Guraso Eskolako batzarra.

### ZEZEILAK 25 IGORRE

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra Kultur Etxean.

### ZEZEILAK 26 ARRATIA

Gizonentzako Gunean parte hartzeako izena emoteko azken eguna. Arratia Udalen Mankomunidadeko Berdintasun Zerbitzuan.

#### ARTEA

18:00etan, bizikletak konpondu eta mantenimenturako tailerra.

#### BEDIA

17:00etan, Zugatz Eguna. Haziak landatzen tailerra ludotekan.

#### DIMA

18:00etatik 21:00etara, herri galdeketearen

aldeko sinadura bilketea Alkarregaz Gure Esku Dagoren lokalean.

#### IGORRE

19:00etan Zertu Kultur Elkartearen Batzar Orokorra Kultur Etxean.

19:00etan, Koldo Katxoren berbaldia "Laudato Si Gora Zu Jauna: guztion etxea jagon dagigun" Kultur Etxean.

20:00etan, Mendi Amesgarriak. Bilbao Mendi Film Festivaleko filmak.

#### IGORRE/LEMOA/ZEBERIO

19:30ean, atzen barikua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

### ZEZEILAK 27 AREATZA

AKKB Bazkide Eguna.

20:00etan, Organizing jazz taldea, (Elsa Lizundia saxoa jotzen) The Quiet Corner-en.

#### DIMA

11:00etatik 14:30era, herri galdeketearen aldeko sinadura bilketea Alkarregaz Gure Esku Dagoren lokalean.

#### IGORRE

22:00etan, zinea *Joy*. Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

Ganzabalek antolatuta, Zugatz Eguna.

### ZEZEILAK 28 BEDIA

Gangurenak antolatuta, Alto Campoo-ra eski urtekerea. Egun osoko urtekerea umeentzat.

#### DIMA

11:00etatik 14:30era, herri galdeketearen aldeko sinadura bilketea Alkarregaz Gure Esku Dagoren lokalean.

#### IGORRE

17:00etan, zinea, *Alvin y las ardillas: Fiesta sobre ruedas*; 19:30ean, zinea *Joy* Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekerea Arratiatik.

### ZEZEILAK 29 IGORRE

10:00etan, andra etorkinentzako jabekuntza ikastaroa. Mankomunidadeko egoitzan.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### SALGAI

Bogaboo-a eta sehaska zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

#### SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

### DANERIK

#### APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, bakotxa aseguru eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

#### ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarrenean! Astean ordu biko klaseak, arrastietan. Interesautaz bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

#### BEHAR BILA

Etzeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra.

Telefonia 634 438 725.

#### BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonia 635 207 386.

#### BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesatuak 649 979 115 telefonora deitu.

#### PARKING PARTZELA ALOKAIRUAN

Igorren, Lehendakari Agirre kalean, parking partzela bi alokairuan. 30€ bakotxak. 659 395 911.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

# Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *La novia* filmarako.**

Oskar Gorostiaga (Arantzazu)  
Maider Martinez (Igorre)



**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Aneika Araren* kontzerturako.**

Edorta Alonso (Zeanuri)  
Joserra Ipiñazar (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13

urte eta

ehundaka

lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

## EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Dimako leku-izena. 2.- Abadearen  
txurea. 3.- Musika nota. AtsedenaIdi.  
4.- Bat erromatar. Ilada. 5.- Banakako.  
6.- Ala. Erabat, sano. 7.- Izan aditz  
jokoan. Kriptoaiaren sinboloa.  
8.- Kanpoan. Arabiar munduan  
erabilitako noblezia titulu. 9.- Bibliako  
personajea, Moab-eko andrea. Baietza.

## GOITIK BEHERA

- 1.- Botanikan, patan bedar.
- 2.- Gariaren antzeko landare mota.
- Ulertu. 3.- Galioa. Norbait. 4.- Zauritik
- dario. (Atz.) Bizkaiko udallerria.
- 5.- Trakets. Molibdenoaren sinboloa.
- 6.- Lino-matazaz egiteko tresna.
- 7.- (Atz.) Azkar. Liburu batek hainbat
- ditu.


[illegible]

Topau sendabedar mota desbardenen zazpi izen.

S	O	L	O	K	O	S	A	L	U
E	R	K	A	M	A	M	I	L	A
N	R	U	B	I	L	U	G	E	R
D	O	R	G	A	M	E	H	A	R
I	S	T	O	L	E	Z	I	B	A
K	E	P	O	M	A	Z	T	A	B
O	D	U	O	U	E	I	X	I	A
B	E	K	R	A	I	R	O	B	G
U	Z	T	E	L	G	A	O	L	A
R	I	T	G	E	B	U	P	A	R
O	S	K	A	R	D	U	A	S	E
Z	E	I	N	A	B	E	D	A	N
U	R	R	O	M	E	T	U	N	A
P	A	I	A	K	Z	E	K	O	L
E	S	T	O	K	L	E	D	A	R

# AKI MI KO

# Zorrozki




  
 Agirre Lahendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
 Tfnoa. 94 631 92 96 • [seimoda@hotmail.com](mailto:seimoda@hotmail.com)


   
**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Corte, 29      Telefonoa: 94 673 60 14      IGORRI-BIZKAIA

AKETEGIA  
GAY & LORA  
IGORRE

**Igorren**  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza      Tfnoa 649 86 95 36

**NAIARA** Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 10  
48140 Igone  
04 631 52 26

**Orde**  
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA

L. Agirre, I.  
48140 Iñurre (Bizkaia)      Tfnoa.: 94 673 64 75

**ASEGURUAK:** ABOKATUAK;  
**AUTOAK:** ZUZ. ZIBILA  
**ETXEBIZITZAK:** KONTSUMO ZUZ.  
**DENDAK:** ADMINISTRAZIO ZUZ.  
**ISTRIPUAK:** INGURUGIRO ZUZ.  
**BIZITZA...**  
**AHOLKULARITZA:**  
**LAN ZUZENBIDEA:**  
**ZERGAK:**  
**KONTABILITATEA**

Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
 Sabino Arana 3, behea - Igoire (Bizkaia)



Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARIO

**Jose Luis Corbacho** 

**pintura lanak**

Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia

☎ 94-673-70-87  
☎ 609-79-40-54

**\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA**  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 00



*Pinturas Annatia*

Javi Morato

Tel. 628 443 992



**SAIOA LARREA ELORZA**

**"Zeramikazko mural kolektiboa egin gura dot"**

Hamar atzamar, esku bi. Irudimena, gogoia eta ekina. Bidelagun dauka buztina Saioa Larreak. Areatzakoak behe tenperaturarako egokia dan buztina erabilten dau zeramikea egiteko; buztin oso plastikoa da, uzkurtasun maila txikiduna, burdin asko daukalako ‘buztin gorria’ esaten jakona. Danetarik egiten dau, eskatu be halan egiten deutsie eta. Artea eta erabilgarritasuna parean, aurrera doa berak aukeratu eta bizi dauan bidean.

**Irati Urien**  
**Artisautza eta artegintza da buztinagaz behar egitea. Zer izan zan zuretzat lehenengo, artea edo lanbidea?**

Lanbidea baino lehenago artea bera. Zeramikeagaz hasi orduko Arte Ederretatik pasauta nago. Debako ‘Artes y oficios’ eskolan be egon nintzan gero, eta han, Arte Ederretan moduan, gauza gehiago probau nebazan, narrua esaterako. Lehenengo, apurtxo bat mundu desbardinak probetea izan zan, eta gero ebatzi neban zeramikea izatea nire ofizioa.

**Zergaitik zeramikea?**  
Orduak eta orduak pasetan neban buztinagaz gauzak egiten eta gustura sentiduten nintzan. Taberna baten nengoan beharrean orduxean eta lan haretan ezin nintzala nire bitzita osoan egon ikusten neban, ez zala niretzako. Orduan esan neban, orain da momentua.

**Posible da honetatik bizitea? Badago beste inor Arratian?**  
Bai, bueno, ez honetatik bakarrik. Nire bikotekideak be behar egiten dau eta eskerrak horrerik bestela niri neuri ez deusta emoten honegaz bakarrik. Badakit Zeanuriko Bego Rojo zeramika munduan ibiltan dala eta alkarte baten sartuta dagoala, ez dakit ze puntutaraino bizi dan honetatik. Gero eskulan taldeak be egoten dira, Lemoan labe bat dago eta han egosi ahal dabe.

**Non egiten dozu behar?**  
Igorren daukat tailerra orain dala lau-bost urtetik. Nik tailerra deitzean deutsat jenteak "dendea" deitu arren; izan be, nire produktuak daukadaz bertan eta gura dauana etorri leiteke, enkarguak egin... baina

ez dauka dendan ordutegia. **Beste askok lez denpora barrietara egokituteko modernizau egin behar izan dozu ofizioa?**  
Egiten dodan "pieza bakarra" deritxana, nire paranoia edo barruko gauzak aterateko da, eta horreek igual nik bakarrik aituten dodaz. Baina jenteak antxinako erako gauzak eskatuten dauz, txokolatera joko bat... apur bat rustikoa dana. Gaur egungo gauzak be bai: serigrafiadun baldosak, muralak... Ez dot moldaketarik egin behar izan. Igual material bat besteagaz konbinau dot, baina ez dot ezer barria asmatu.

**Lanbide honek ze leku dauka gizartean, lekuri badauka siki-erian.**  
Eskolaz kanpoko ekintzak emoten dozuzanean ingelesari, solfeoari... sekulako garrantzia emoten jako eta zeramikeagaz pasetan da ixten deutsuela ez dakit ze txoko, "konpondu zaitez horreekaz mahaiakaz" esanda. Antza lohitu edo egiten dozu-nez... Badaroadaz urte batzuk horretan daborduko eta nahiz eta kontua hobetuten doan tokau izan jataz leku batzuk... Seguruenik ingelesa emoten daben gelea eskolako gela bat izango da, mahaiakaz eta abar; baina zeramikea, hartu asto batzuk, ohol zati bat eta hor daukazu. Zentzu horretan holan da.

Gero, konpetentzia handia dago merkatal zentro handiakaz. Hor zeramikea oso merke salduten da eta zuk eskuz egiten dozuna, zure orduak, zure denporea, zure sormena, hori dana ez da baloretan. Orduan gatx dago baina hemen gagoz, eta tiritu behar.

**Non erosi leitekez zure piezak?**  
Konbidatuten nabenean azoketara

joaten naz. Nire piezak nire taile- rrean bertan be salduten dodaz baita beste denda batzuetan be: Areatzako Gauzak dendan, Igorreko Zazpi Haizetaran, zein Puntuz Puntu Bilboko dendan. Momentuz leku horreetan, bestela nire telefonoa daukan edozeinek deitu eta listo.

**Ze piezak dauka eskaerarik handiena?**  
Badago bat egia esan harritu naua- na, ez neban espero gaur egun itsulapikoak hainbeste salduko zira- nik. Oso koloretsuak dira, piezea ez da karuegia... Gainera personalizau daiteke, izena ipini zeinkio edo jen- teak biaje bat egin gura dauanean, biajerako lekua ipinten dau ‘Roma’ adibidez. Sasoiak dagoz, gabonak, maiteminduen eguna... holako fe- txatan hainbeste enkargu eukiten dodaz. Arrakadak, lepokoak, beraka- tzak gordetekoak... be ondo saldu- ten dira, gauza txiki zein erabilgarriak. Baina itsulapikoana izan da klabea.

**Eta zuk, zure ze pieza maite dozu gehien?**  
Sasoiak daukadaz. Batzuetan orduak eta orduak pasetan dodaz tomoan, jarten nazanetik jagiten nazanera arte lau ordu pasau leitekez kontu- ratu bari, eta segidu egingo neuke. Beste batzuetan eskuz hasten naz buztin zati handi bategaz zati hori landuten zein zati txikiakaz olgetan be bai. Animoz zelan zagozan be eragingo dau seguruenik, baina ez daukat holan ezer berezirik.

**Erakusketarik egin dozu edo egiteko asmorik? Ze proiektu daukazu buruan?**  
Bere denporan egin neban bat Debako arte eskolan nenbilanean. Erakusketa kolektibo bat egin gen- duan, gai bat proposatu euskuen eta baktotxak hiru pieza egin gen- duan. Ez dot erakusketa gehiago egin baina gustauko litxakit, eta nire proiektuetako bat izango litzateke kanporako obra bat egitea; ez dakit egongo dan baina adibidez Arra- tian ez dot ikusi eskulturarik edo kanpoan dagoan zeramikako pie- zarik, horregaitik zeramikazko mural bat egin gurako neuke baina kolekti- boia, gai bat aukeratu eta danon ar- tean kalean egoteko obra bat egin. Landu egin behar dot idea hori.

**Ikastaroak emoten dozuz.**  
Bai, eskolaz kanpoko ekintzak emo- ten deutsedaz 6-12 urte bitarteko umeai. Gustura nabil eurekaz, ba- tzuk plastikoa dan material bategaz

*"Igorren daukat tailerra, jenteak dendea deitzean deutsan arren"*

esperimentetan dabe lehenengoz eta harrigaria izaten da. Umeak sormen handia daukie eta sorpre- sa asko egoten dira, gustetan jata. Gainera batzuk txikiak diranean ku- riosidadeagaitik edo, probau egiten dabe buztina eta musturrak zein sudur ondoa lohi-lohi eukiten dabez gero, kuriosoa izaten da. Horretatik aparte, jaiak diranean umeen eguna egoten da. Egiten dot buztintza ikastaroren bat be, adibidez Area- tzako parketxean emonda daukat. Holan puntualak diran tailertxoak, ordu bi-laukoak emoten dodaz. Eta ludoteketara be joan naz, tomoa eroaten dozu eta jenteak gozatu egiten dau.

Nagusiai be emoten deuteset nire tailerrean. Zazpi personako taldetxo bat daukat, ia urtero etorten dira- nak, lagunak egin gara. Talde majoa daukat eta eurekaz be ondo nabil. Oso desbardina da umeai emotea edo nagusiai emotea, baina bietan gustura nago.

**Zein da nagusien perfila?**  
Andrak dira, ez daukat gizonezkorik. Lehenengo urtean bi euki nebazan baina gero ez dabe segidu. Adinari jagokonean danerik daukat, baten bat gaztea da eta beste batzuk ez hainbeste. Teknika desbardinak ika- sten etorten dira, ez bereziki ogibide moduan. Tailer hau Igorreko Kultur Etxean hasi nintzan emoten eta gero nire tailerrean. Pasau jata inoz ikastaroren bat egin dodanean, joan eta hamarretik bederatzi neskak izatea. Eta badagoz zeramistak diran

gizonak baina... **Umeak "debekatuta" daukie lohitutea, hori posible izateko askatasuna emoten deute buztinak. Onuragarria izango da, ezta?**  
Nik uste dot baietz. Sormen han- dikoak dira umeak, orduan oso librea da eurentzako. Burrusa zein kamiseta zahar bat ekarten dabe eta amaieran edo egun batzuk pa- setan diranean, txikiak esaten deus- te, "andereño lohi-lohi daukat" eta erantzuten deuteset beharra egin da- benaren seinale dala. Bueno ba hor joaten dira sano harro, zenbat eta lohiago burrusa orduan eta pozago. Eskuakaz be bardin pasetan da.

**Nondik ekarri edo erosten dozu buztina?**  
Orain erosi egiten dot. Probedore bat baino gehiago dagoz, Gasteizen, Gatican, Usurbilen... niri Gatikatik ekarten deuste. Eskaera baktotxean berrehun kilo edo gehiago eskatu- ten dodaz.

Aitak ezetuten dauz basoak eta lur- rak, inoz beragaz joan eta hemen bertan hartu dot. Batez be pistak eta zabalduten diranean buztina nahi- non agertuten da, batzuetan nahiko plastikoa eta ona gainera. Baina kla- ro, garbitu egin behar dozu, landu egin behar dozu eta horrek beharra dauka. Halanda be, mendira banoa boltsa bete hartuten dot, apurtxo bat kapritxoz zelangoa dan probetako bakarrik. Gaur egun erosi egiten dot, prest dago erabilteko, paketea zabaldutea baino ez da egin behar.

